

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

17/21 prozedura laburtuan epea jartzea

2020ko irailaren 14ko ondorioekin arkitekto tekniko lanpostutik —bitarteko funtzionario tekniko— kentzen zutela komunikatu zitzaioneko ebazpenaren kontra aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ezetsi zeneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2020ko urriaren 26ko ebazpenaren kontra 22734426F nortasun-agiriaren titularrak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —17/21 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 17an

Udal legelaria

MIREN JOSUNE IZQUIERDO CORRES